



Ekipoa	VIS eta NIR bidezko bereizgailu optikoak
Kodea	C-3011
Ingurumen-hobekuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Hondakinak bereizteko efikazia hobetzen da (% 90-95eko efikazia) - Hondakinak bereizteko prozesuaren errendimendua handitzen da eta denbora gutxiagoan hondakin gehiago bereizten dira.
Honetan datza:	<p>Bereizgailu optikoek ahalbidetzen dute hainbat material-tipologia automatikoki sailkatzea eta bereiztea, konposizioaren (NIR) edo kolorearen (VIS) arabera. Sailkatu beharreko materiala askotan uhal garraiatzaile batean jartzen da, oso abiadura azkarrean funtzionatzen duena, isolagailuaren antzeko eginkizuna bete dezan. Argi-lanparak eta detektagailu optikoak uhal garraiatzailea baino gorago instalatzen dira. Detektagailu horiek infragorri hurbileko espektroskopian (NIR) oinarritutako sentsoreak izan daitezke —materialaren konposizioaren arabera sailkatzeko—, edo argi ikusgaiaren espektroskopian (VIS) oinarritutakoak, materialak kolorearen arabera bereizteko. Bereizgailu optikoetan sentsore horietako bat egon daiteke edo teknologia bereberian hainbat sentsore mota sartu daitezke.</p> <p>Sentsoreek identifikatutako zatikiak banatzeko, deskargaren muturrean kokatutako txorroetako aire-pultsuak erabiltzen dira. Hainbat aire-txorro indibidual dira, eta elkarren artean gutxi gorabehera 30 mm-ko distantzia egoten da. Sentsoreek lortutako datuen prozesadoreak seinale bat transmititzen du materiala detektatzen bada, eta aire-pultsuak gainerako materialetatik bereizten du, aire-txorro bat edo gehiago aktibatuta.</p> <p>Teknologia hau mota askotako hondakinak gaika bereizteko erabili daiteke, hala nola papera, kartoia, beira, zepak, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak (EEH), metalak, biohondakinak, polietilenoa (PE), polipropilenoa (PP), poliestirenoa (PS) eta abar, baita ehunak ere. Hondar-erregai solidoan metal astunen eta kloroaren edukia murrizteko ere aplikatzen da. NIR sistemarekin egiten den birziklagarrien berreskuratzea % 80-90 ingurukoa da, eta % 85-95ekoa, lineako bi NIR sentsoreekin egiten bada. Baina lortu daitekeen kalitatea % 90-97 artekoa izan daiteke, adibidez, bi sentsore motak (VIS eta NIR) eta adimen artifiziala konbinatzen badira.</p>
Zein sektoretan aplikatu daitekeen	Teknologia honen aplikazioko sektore nagusia da Hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatzea; balorizazioa (EJSN 38). Gainera, EEHak bereizteko ere teknologia oso erabilgarria izan daiteke.